



“Osasun protokoloak entzuleen neurrira egin dira; gorrok ez gaituzte aintzat hartu”

Koronabirusak oztopo komunikatibo gehiago ekarri dizkio gorren komunitateari. María Vázquez abadiñarra gorra da eta egunotan bizitzen dabilena kontatu dio ANBOTOri María Sánchez-Guardamino interpretearen bitartekaritzagaz. • 4



“Inguruko arkitektura-estudio bat erronka handiei aurre egiteko gai dela erakutsi dugu”

Industria sektorean energia-ikerketaren abangoardian egon gura duen Energy Intelligence Center diseinatzen aritu da Mireia Gandarias. • 9

60 bat lagun batu dira Zaldibarko Zaintza Sareari eskerrak

Zaldibar | Nora Narbaiza eta Izaskun Narbaiza Zaldibarko Zaintza Sareko kideak dira. Sareari etapa bat amaitu zaion arren, saretuta jarraitzeko asmoa dutela aitortu dute • 3



Durangoko igerilekuak zabaldua, eman diote hasiera denboraldiari Durangaldean

Durangaldea | Astelehenean zabaldu zituzten Tabirako igerilekuak, eta ekainaren 22an zabalduko dituzte Elorriokoak: Eleizaldekoak eta Kiroldegikoak. Otxandioko igerilekua uztailaren 1ean zabalduko dute • 10



Elorrion 705.000 euroko plan integrala onartu dute herria biziberritu eta pertsonak erdigunean jartzeko asmoz

Elorrioko Udala osatzen duten hiru alderdiek onartu dute plana, eta diru partidarik handiena gizarte larrialdietarako laguntzen atalak du: 215.000 euro

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

COVID-19ak Elorrión izan duen "inpaktu ekonomiko txikitu, herriko ekonomia suspertu eta pertsonak zaintzen" jarraitzeko asmoz, Elorrión 21 neurriko plan integral bat onartu dute. "Plana osatzeko, ezinbestekoa izan da alderdi guztiek in elkarlanean aritzea, baita eragileekin ere. Desberdintasunak alde batera utzi eta denok herriaren alde lan egin dugu", aitortu du Idoia Buruaga alkateak. Bestalde, plana "tentuz" egindakoa dela aitortu du.

Planak ardatz nagusi bi ditu. Alde batetik, neurri sozioekonomikoak daude, eta, bestetik, kultura eta aisialdia sustatzeko neurriak. Planean diru partidarik handiena duen atala gizarte larrialdietara bideratutakoa da; 215.000 euro ipiniko dituzte. "Datorrenak oso itxura txarra du, eta beharrezko ikusten dugu oinarritzko gauzetarako partida hau onartzea", esan du Maria Herrero alkateordeak. Etxeko langileentzat eta nagusientzat ere emango dituzte laguntzak. Eta, besteak beste, zerbitzu berri bat ere martxan ipiniko dute emakumeei laguntza emozionala emateko.

Laguntza horiez gainera, beste hainbat ere egongo dira. Esaterako,



Planaren helburua herria biziberritzea da.

hainbat diru atal onartu dituzte herriko eta herritarren ekonomia sustertzeko; autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat 100.000 euroko laguntza emango dute.

Horrez gainera, kultura eta aisialdia sustatzeko neurriak ere hartu dituzte. "Pertsonak eta gizar-

tea kulturaz eta aisialdiaz elikatu behar direla uste dugu. Hori horrela, musika, dantza eta antzerkia osagai nagusi dituen kultur zopa dastatuko dugu Elorrión uda honetan. Herriko kaleak poztasunez beteko ditugu", gaineratu du alkateordeak. Uztail eta abuzturako

Musikaire antolatu dute, eta 50.000 euro ipiniko dituzte horretarako. Bestelako kultur eta kirol ekintzak egiteko, 110.000 euro ipini dituzte.

EAJ "pozik" planagaz

EAJko kideek prentsa ohar bitartez azaldu dutenez, "pozik" daude

gobernu taldeak eurek aurkeztu-tako proposamenak onartu ditue-lako. "Esaterako, txarto pasatzen dabiltzan herritarrei laguntzeko diru partida bat onartzea proposatu genuen, eta, azkenean, 215.000 euroko partida onartzea eraba-ki da", esan dute oposiziokoek.

**Elorrion hainbat diru
atal onartu dituzte
herriko eta herritarren
ekonomia suspertzeko**

***Uztail eta abuzturako
Musikaire antolatu dute,
eta 50.000 euro ipiniko
dituzte horretarako***

Hala ere, deseskalatze sasoiari udalak izan duen plana kritikatu dute jeltzaleek. "Deseskalatzea oso txarto antolatuta egon da, eta Durangaldeko gainerako herrietan baino motelagoa izan da", kritikatu du Mikel Arruabarrena EAJko kideak.

Zaldibarko dendetan euskararen erabilera bultzatzeko gida kaleratu dute

ZALDIBAR • M.Z.

Zaldibarko Euskara Sailak *Lan eta erosi euskaraz!* gida prestatu du, herriko merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko helburuagaz. Zaldibarko denda eta tabernetan banatuko dute gida. Zaldibarko Udalaren webgunean eta Euskara Zerbitzuaren eta udalaren sare sozialetan ere egongo da eskuragarri. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuez gainera, besteak beste honako informazioa ere eskaintzen da gidan: Durangaldeko Mankomunitateak euskarazko errotuluak edo webguneak ipintzeko eskaintzen dituen diru-laguntzak, udalaren aholkularitza eta itzulpen zerbitzuak, edo Lansarea eta Beharsarea atarien bitartez langile euskaldunak aurkitzeko laguntzak.



Berrizko Udalak zerbitzu kaltetuen tasak bueltatuko ditu

BERRIZ • M.Z.

Kirol zerbitzuen kasuan, urteko kuota ordaintzen dutenei dagokien zati proportzionala bueltatuko die udalak. Zabor biltzetaren eta estolderia zerbitzuaren tasa murriztea ere erabaki du udalak. Zerbitzu soziokulturaleri dagokienez, ofizioz bueltatuko dituzte instalazioak ixtearen ondorioz eman ezin izan diren zerbitzuetako likidazioak. Bestalde, ostalariek ez dute tasarik ordaindu beharko martxoaren 14tik maiatzaren 14ra terraza instalatzeko zerbitzuagaitik.

Abadiñoko alkateari mezua bidaltzeko atal berria udal webgunean

ABADIÑO • A.M.

Mikel Garaizabal alkateari edozein duda edo kezka proposatzeko atala zabaldu du Abadiñoko Udalak bere webgunean. "Udalak beste pauso bat eman du herritarrengana hurbiltzeko eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko", dio alkateak.

Abadiñoko EH Bilduren dietak elikagaien bankurako

ABADIÑO • A.M.

Hauteskunde mahaiak osatzeko plenoa egin zuten Abadiñon. Ordu laurdeneko plenoagaitik zinegotzi bakoitzak 65 euroko dieta jaso zuela adierazi zuen EH Bilduk, eta bere zinegotzien dietak elikagaien bankuari emango dizkiola.

Durangoko Udalak martxan ipini du merkataritza indartzeko plana

Parte-hartze prozesu bat zabaldu eta bilera saio bat abiatu dute; ekingiza plana irailerako prest izan gura dute

DURANGO • M.Z.

Durangoko Udalak Ekintza Planean parte hartzeko gonbita egin die herritarrei eta sektoreko kideei. Gune komertziala, eta ostalaritza eta zerbitzu guneak hobetzea eta modernizatzea izango da, besteak beste, Ekintza Planaren helburua. Herriko merkatariei aukerak zabaltzeko asmoz, Durangoko Udalak Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia (MIPB) martxan ipini du. Horretarako, parte-hartze prozesu bat zabaldu eta bilera saio bat abiatu dute. Lehenengo bilera asteon egin du, Dendak Bai elkar-teagaz batera, eta neurri zehatzak jasoko dituen Ekintza Plana irailera-ko prest egongo dela aurreratu dute. "Hirugarren sektore ekonomiko sendo bat izateak bizi kalitatea eta herri dinamismoa eskaintzen dizkie herritarrei. Aldi be-

rean, gertutasunezko zerbitzu eta aukera komertzial zabala izateak jendea herrian bertan kontsumitzera bultzatzen du, klima biziagoa eta erakargarriagoa ematen dio herriari, eta baita bizimodu jasagarriagoa ere", adierazi dute

Dendak Bai: "Plan honek aukera emango digu elkarlanean merkaritza sektorea indartzeko"

udal ordezkariak. Dendak Bai-ko kideek "modu positiboan" hartu dute Durangoko Udalaren ekimena, eta eskerrak eman dizkiote udalari: "Plan honek aukera eman-
go digu elkarlanean Durangoko merkaritza sektorea indartzeko".

“Agian hauxe izango da unea konfinamenduan ikusitako beharrianak plazaratu eta horiei erantzun bat emateko”

Narbaiza ahizpak Zaldibarko Zaintza Sareko kideak dira. Sareari etapa bat amaitu zaiola aitortu duten arren, Zaldibarren saretuta jarraitzeko helburua dutela adierazi dute



ZALDIBAR • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Koronabirusaren krisiaren eta alarma egoeraren eraginez, 60 bat lagun elkartu eta Zaldibarko Zaintza Sarea sortu zuten. Alarma egoera ezarri zenean eman zituen lehenengo pausoak Zaintza Sareak, eta faseak aurrera egin ahala euren eginbeharra gutxitzen joan den arren, etorkizunean ere saretuta jarraitzea dute

helburu. ANBOTOk Zaintza Sareko talde motoreko pataide diren Izaskun Narbaiza Albisuagaz (Zaldibar, 1993) eta Nora Narbaiza Albisuagaz (Zaldibar, 1997) berba egin du.

Noiz eta zelan sortu zen Zaldibarko Zaintza Sarea?

Nora Narbaiza: Martxoaren 11n Gaztetxea itxi ziguten, eta hainbat

herritan zaintza sareak sortzen hasi zirela ikusi genuen martxoaren 12an. Barikuetan Gaztetxekeo batzarra egiten genuen, eta kalean batu ginen. Zaldibarren ere zerbait egin genezakeela pentsatu genuen. Batzarrean erosketa zerbitzua martxan ipintzea erabaki genuen. Baita Dominika Talde Feministagaz hartu-emanetan ipintzea ere.

Eurekin berba egin eta gero, umeak zaintzeko aukera ematea ere pentsatu genuen.

Izaskun Narbaiza: Baina berehala ikusi genuen zaintzarako ez zegoela horrenbeste beharrianik, eta erosketetan zentratzea erabaki genuen.

Zelako erantzuna izan zuen herrian?

I. N.: Zabalkundea whatsapppe egin zen, eta hasieratik jende nahikotxok eman zuen izena. Gehienak 40 urtetik beherakoak izan ziren, eta oso profil ezberdinekoak.

Erosketak egiteaz gainera, beste hainbat gauza ere egin ditu sareak.

I. N.: Zaintza sarea sortu zenean bilera telematiko bat egin genuen. Zenbait lagun batu ginen, eta, asteek aurrera egin ahala, taldetxo hori zaintza sareko talde motore bilakatu zen. Talde horri eskerrak egitarau bat sortu da, umeekin batera mintzapraktikak egin dira, eta eskolagaz batera jostailu bilketa bat. Motore horietatik ere beste hainbat gauza gestionatu dira. Esaterako, erosketa bat egon denean, Gurutze Gorritik deitzen ziguten, eta guk eskaera hori bete dugu. Protokoloak betetzeko, derrigorrezkoa izan da Gurutze Gorriaren bitartez eskariak gestionatzea.

Zaldibarko Zaintza Sareak zerbitzu berezi bat ere eskaini du, mintzapraktika zerbitzua. Zer dela-eta ipini zenuten martxan?

N.N.: Durangaldetik kanpoko herriren batean zerbitzu hori martxan ipini zutela jakin genuen, eta bage-

ume horiek irailera arte ez zuten euskaraz berba egingo eta.

Ume asko izan dituzue?

N. N.: Hamabi bat ume eta beste horrenbeste boluntariok parte hartu dugu. Hasieran, bideodei bitartez egiten genituen saiotxoak, eta amaieran batzuek presentzialki egin dituzte.

“**Orain egoera larri bat pasatu dugu, baina nork dio aurrerago egoera larriago bat ez dela etorriko?**”

Gaur egun Zaldibarko Zaintza Sareak martxan jarraitzen du?

I. N.: Konfinamenduak aurrera egin ahala sortutako sarea da, eta zerbitzu eta ekintzak ere horrela sortu dira. Eboluzionatzen joan den sarea da Zaldibarrekkoa. Orain pare bat aste, “eta orain zer?” galdetu genion geure buruari. Badakigu leku guztietan dabiltzala gauza hauek amaitzen. Baina, zergaitik? Dagoeneko ez dagoelako premiarik? Berez, badago beharrian, argi eta garbi. Egia esan, etapa bat amaitu da, baina, gure ustez, ezin da dena bertan behera utzi. Orain, baliteke Zaldibarko Zaintza Sarearen papera denbora honetan guztian ikusi dugun beharrian salatzea izatea. Agian hauxe izango da unea konfinamenduan ikusitako beharrianak plazaratu eta horiei erantzun bat emateko. Zaintza sarea zaintza bizitza komunitatea lemapean sortu zen eta hori aurrera doa. Egoera larri bat pasatu dugu, baina nork dio aurrerago larriago bat ez dela etorriko? Beraz, saretuta jarraitzea ezinbestekoa da. **N. N.:** Mintzapraktiken kasuan, atzo eman genien amaiera. Denok batu eta mintzapraktika bat egin genuen. Hasieratik erabaki genuen zerbitzuari amaierako data bat ipini behar zitzaioela. Orduan, umeen ikasturteagaz batera amaitzea erabaki genuen. Oraingoz, zerbitzua eten egiten da, baina batek daki, agian beste beharrianen bat egongo da eta irtenbideren bat aurkitu beharko zaio.

“**Eskolagaz hartu-emanetan ipini ginen eta euskaraz berba egiteko boluntarioak topatzen hasi ginen**”

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



"Durangoko igerileku estaliak noiz zabalduko dituzten da erabiltzaileen kontsulta nagusia"

Landako I kiroldegia joan zen astean zabaldu zuten eta hango monitoreak da Olaia Madina



Olaia Madina Bilbao, spinbike egiteko erabiltzen diren bizikleta artean.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Azpiegitura publikoak normaltasun berrira egokitzen ari dira apurka-apurka. Durangoko atletismo pistaren ondoan dagoen Landako I kiroldegia da eurentariko bat. Joan zen astean zabaldu zuten, segurtasun neurriak hartuta.

Olaia Madina Bilbao kiroldegiko fitness monitoreak da eta zabaldu aurretik "kezkak" zegoela onartu du. "Baina hartutako segurtasun neurriak ikusita, lasaitu egin nintzen. Ondo daude, eta, egia esanda, eskertzen da neurri egokiak hartu izana, denon mesederako", adierazi du.

Kiroldegiko sarreraren tenperatura hartzen diete erabiltzaile denek, maskarak ipinita eduki behar dituzte jarduerak gunera heldu arte, eta eskuak garbitzeko gel desinfektatzaileak nonhai daude. Gainera, kiroldegira puntu batetik sartzen dira eta beste batetik irteten dute, bidean ez gurutzatzeko. Horiek dira protokoloan zehaztu dituzten segurtasun neurrietariko batzuk. Erabiltzaileek neurri horiek ondo

hartu dituztela dio Madinak, eta apurka ohitzen ari direla.

Gaur egun zortzi jarduerak egiten dira kiroldegia horretan. Spinbike da eurentariko bat. Astelehen arratsaldeko lehenengo klasea ez zuten eman, ez zelako inor bertaratu, baina uda sasoiak gerturatzeko denon urtero izaten da kantitatean beherakada bat, Madinaren esanetan. "Jendeak gurago du ariketa

Hasieran "kezkak" zegoen, baina segurtasun neurri egokiak hartu direla deritzo

kalean egin, eguraldia aprobetxatzeko", azaldu du.

Azkenaldian hainbat herritar joan izan zaizkie kiroldegia berriari buruz galdetzerak. "Igerileku estaliak noiz zabalduko dituzten da erabiltzaileen kontsulta nagusia", azaldu du kiroldegiko monitore elorriarrak.

Alde Zaharreko oinezkoen guneak berrantolatzekeko prozesu parte-hartzaile bat hasi du Durangoko Udalak

Herritarrek ekainaren 28ra arteko epea izango dute prozesuari buruzko ideiak emateko. Egun indarrean dagoen araudia 2006koa dela-eta, ordenantza eguneratzea gura dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak oinezkoen guneak arautzen dituen ordenantza moldatu gura du, modu horretan Alde Zaharreko kaleak eta inguruak berrantolatzeke. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, gaur egun indarrean dagoen araudia 2006koa da. Ordutik hona, Alde Zaharreko beharrezko aldaketak egin direla iritzi diote, eta horri erantzun guran galdeketa bat ipini dute martxan.

Herritarrek ekainaren 28ra arteko epea izango dute prozesuan parte hartzeko. Horretarako, www.partehartu.durango.eus atarira jo eta

bertako galdetegiak bete beharko dute. Udalaren helburuak, gutxi gorabehera, Alde Zaharreko bizilagunen lasaitasuna bermatzea, den-

Udalaren helburuak bizilagunen lasaitasuna eta merkataritza jarduerak bermatzea da

da txikien merkataritza jarduerak sustatzea eta mugikortasun jasangarriagoa sortzea dira. "Ahal dugun neurrian, durangarren iritzia eza-

gutuz gura dugu, eta prozesu hau horren adibide da. Beharrezkoak ez diren sarbideen eta ordutegiz kanpoko zama-lanen arazoak konpondu gura ditugu ordenantza berri honegarekin, eta funtsezkoa iruditzen zaigu herritarrei galdetzea", adierazi dute gobernu taldeko kideek.

Web orriaren bitartez

Prozesuan parte hartu gura duten herritarrek aurrerago aipatutako web orrira jo beharko dute. Inprimaki bat bete beharko dute, eta, bertan, bakoitzaren proposamenak erantsi beharko dituzte fitxategi informatiko bat plataforman ipinita.



Alde Zaharreko merkataritza jarduerak sustatzea da moldaketaren helburuetariko bat.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko ekainaren 19a
18. urtea - 812. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Osasun arreta guztia telefono bitartez egin da; zer egin dezakegu gorrak garenok?”

Koronabirusak komunikazio oztopo gehiago ekarri dizkio gorren komunitateari. Maskara da horietariko bat, baina badira pandemia baino lehenagotik datozen beste hainbat oztopo ere. Entzuleak ez direnak ere aintzat hartzeko eskatu dute



GORRAK • EKAITZ HERRERA

María Vazquezek (Abadiño, 1994) bere sorlekuan hartu gaitu, Traña Matiena auzoan. Euskal Gorrak Federazioko kidea da eta María Sánchez-Guardamino interpretearen bitartekaritzaz erantzun die ANBOTOren galderei.

Koronabirusari lotutako mezuak gorren kolektibora moldatu dira?

Ez. Informazio asko falta dugu, eta heltzen zaigunak ziurgabetasuna eragiten digu askotan. Telebistan, adibidez, sarri ez da interpretarik egoten, eta interpretea dagoen kasuetan lauki txiki batean ageri da, kalitate baxuan, eta batzuetan ondo fokatu barik. Azpitoluen

kasuan ere, antzera. Batzuetan ez dago azpitolurik, eta daudenean, edo berandu sartzen dituzte edo informazioaren erdia falta dute. Gobernuetako agerraldietan, hor bai, hor beti egoten da interpretea, eta helarazten digute informazioa. Bestalde, idatzizko komunikazioan badugu informazioa. Gertatzen dena da gure kolektiboko kide guztiak ez daudela trebatuta idatzizko komunikazioan. Eta, gure errealitatetik aparte, beste batzuen ere kontuan hartu behar da, itsuak diren gorrena, hain zuzen ere.

Gizarteak gorrak ahaztu dituen sentipenik baduzue?

Bai. Esatea apur bat gogorra bada

ere, iruditzen zait gizarte egoista batean bizi garela. Bakoitzak bereari begiratzen dio. Jende askok ez du gorra den inor ezagutzen, eta, jakina, gorrak aintzat ez hartzea dakar horrek. Entzule direnek gorren bat ezagutzen dutenean, orduan konturatzen dira ditugun oztopo komunikatiboez, eta horiek apurtzeko borondatea agertzen dute. Horixe eskatuko nioke

“**Ez zaigu informaziorik heltzen. Protokolo eta segurtasun neurri guztiak entzuleak direnen neurriareginda daude**”

gizarteari, oztopoak apurtzen laguntzeko. Komunikazio guztiak bisualagoak balira, eskubide berdina izango genituzke denok.

Adibideak ipintzearen, zeintzuk dira osasun krisialdi honetan dituzuen oztopoak?

Hainbat daude. Oztopoetariko bat lehentxoago aipatu dudana, ez zaigula informazioa heltzen. Informazio, protokolo eta segurtasun neurri guztiak entzuleak direnen neurriareginda daude. Gorrak garenok edo bestelako ezgaitasunen bat dutenak ez dira aintzat hartzen. Gero, hezkuntzaren gaia dago. Internet bidezko ikasketen bidea oso ondo dago, inportantea da. Baina arazoak ere planteatzen

ditu. Kontuan hartu behar da gor guztiek ez dakitela ondo zeinuhizkuntza, eta, horrenbestez, bideoaren beste aldean interprete bat izatearen aukera ez dela beti bateragarria. Azpitoluak behar dira. Beste arazo handi bat telefono mugikorra da. Koronabirusari lotutako osasun arreta guztia telefono bidezko komunikaziora bideratu da, baina zer egin dezakegu gorrak garenok? Horren aurka ere bagabilza borrokan. Koronabirusaren aurretik, medikuarenean ordua eskatzeko edo sintomak adierazteko, gure familiako kideren bati deituta konpontzen zen dena. Baina hori arazo bat da guretzat. Pertsona heldua naiz, nire osasuna da. Eta, beraz, zerbait pribatua.

Orain maskarak darabiltzagu, eta maskarek ezpainak irakurtzea galarratzen dute. Zelan moldatzen zarete?

Maskara ez da gorren arazoa bakarrik. Entzuleena ere bada. Azken finean, keinuek, gure aurpegiko jarrerak, informazio asko ematen digute. Egia esan, ezpainak irakurtzea oso lagungarria da, baina ez da irtenbidea. Lagundu egiten die batzuei, baina ez da denentzat bateragarria. Orain, asko berba egiten da maskara gardenari buruz. Baina, oraingoz, ez dago homologatutako ezer. Jendeak erabiltzen ditu, baina seguruak dira? Oraingoz, guk ez ditugu erabiltzen.

Zelan lagundu diezaiokegu gorren komunitateari?

Zer behar dugun galdetuta. Gure kolektibo barruan aniztasun handia dago. Ez gara talde homogeen bat. Eta laguntzeko biderik errazena, lehenengo eta behin, zer behar dugun galdetzea da. Eta ez dadila entzuleen kolektiboa bakarrik aintzat hartu. Pandemia honetan ez dago batasunik guretzat. Entzuleen taldea batuta dago. Gorrena ere bai. Baina ez dago talde bien arteko integrazioa. Non dago integrazioa? Lan handia dugu aurretik. Herritarrei esango nieke beldurrik barik etortzeko gugana. Zeinu-hizkuntza ikasteko. Etorri, galdetu, komunikatu. Apurka-apurka lortuko dugu. Gorrok pertsona indartsuak gara eta elkarri lagunduta asko ikasi dezakegu.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

BIBLIOTEKAREN IREKIERA

Maiatzaren 25etik aurrera



1 ITZULKETAK BUZOIAN



2 BIBLIOTEKARA SARRERARIK EZ

Momentuz ez da sarrera liberrik egongo. Maileguak aldeztu aurretik eskatu beharko dira eta kultur ebeko atean jasoko dira.



3 MAILEGUEN ESKAERA

Maileguak telefonoz, Whatsapp-ez, emailaz edota online katalogoa erabiliz eskatuko ahal izango dira.



4 JASOTZEKO ORDUTEGIA

Goizez (Asteleheneetik ostiralera)
10:00 - 13:00
Arratsaldean (Asteartea eta osteguna)
17:00 - 19:00



5 SEGURTASUN NEURRIAK

Eskarretako materiala higieko neurriak jarraituz entregatuko dugu



94 681 27 26



688 863 736



biblioteca@iurreta.eus



Iurreta
Elezateko Udala

Teknikariok sindikatua jaio da, "ikuskizunetan oihalaren atzealdean eta beltzez jantzita daudenak kontuan hartzeko"

Kulturgintzara eskainiko diren diru-laguntzetan teknikariak ere kontuan hartzeko eskatzen du, besteak beste, kolektiboak; hainbat agerraldi egin dituzte



Teknikariok sindikatuaren aurkezpena.

KULTURA • ARITZ MALDONADO

Normaltasun berria heltzear den egunotan, "abandonatuta" geratu den sektore batek indarrak batu ditu. Hain zuzen ere, ikuskizun eta ekitaldietako teknikariak Teknikariok sindikatua sortu dute. Kultura emanaldi guztiak bertan behera geratu dira orain gutxira arte, eta formatu berriak (sare bidezko kontzertuak, formatu txikiko

ikuskizun publikoak...) agertzen hasi diren arren, kulturari eusten dion industriaren etorkizuna lauso ageri da.

Kontzertuari soinua ipintzeaz, oholtza muntatzeaz, furgoneta gidatzeaz, merchandisinga saltzeaz eta halako lanak egiteaz arduratzen dira teknikariak. Fokuen argietatik kanpora geratzen diren lanak dira, baina beharrezkoak. "Lanpostu

asko dago oihalaren atzean, soinu, argi, backline, ekoizpen eta abarren arduradunenak, eta guztiak dira beharrezkoak kultura sortu eta kontsumitu ahal izateko", dio Ander Berasaluze soinu teknikari durangarrak.

"Biluzik geratu gara"

Sektoreak aspalditik ezagutu duen prekarizazioa "are ageriago" utzi du

Teknikariak kezka dute, berriro "normaltasunez" lan egiteko planik edo datarik ez dutela-eta

osasun larrialdia. "Egoera zaila da sektore guztietan, hori ulertzen dugu, baina gainerakoentzat plan

bat dagoela ikusten dugu. Gure kasuan, ez dakigu noiz bueltatuko garen berriro kontzertu normalak egitera", gehitu du Iñaki Larrañaga elorriarrak; besteak beste, ekoizpen eta management lanak egiteaz arduratzen da Larrañaga. "Iaz 105 kontzertutan lan egin nuen; aur-

Koronabirusaren agerpenak dardarka utzi du sektorea, taldeen biziraupena baldintzatzeraino

ten 25ean lan egiten badut, pozik geratuko naiz", esan du. Kulturako diru-laguntzak banatzean, teknikariak ere kontuan hartzea eskatzen dute, besteak beste. "Inork ezin du ezer programatu, taldeek ez dute kontzerturik joko, eta ez dago aurreikuspenik. Mauka kultur ekoizpen bulegoak ehunka bolo mugitu ditzake urtean zehar, eta orain ez du ezer esku artean". Larrañagaren esanetan, egoera berriak dardarka utzi du sektorea: "Dena hankaz gora utzi du, baita taldeen biziraupena bera ere. Askok urteotan bildutako diruagaz eginiko inbertsioak bertan behera geratu dira". Talde batzuk AEBetara, Mexikora edo Japoniara joatekoak ziren, adibidez. Aurrera begira, kultura "serio hartu ezean", sektorea kinka larrian egongo dela aurreikusten dute.



IGOR IGLESIAS

"Internet bidezko kontzertuen formatua luzarorako izango dela uste dut"

KULTURA • A.M.

Gorakada konpainiagaz Bartzelonara joatear zela izan zuen Igor Iglesias durangarrak koronabirusaren eraginaren berri.

Zelan eragin dizu COVID-19aren agerpenak?

Martxoan 20 antzerki saio nituen Gorakada konpainiagaz, apirilean beste dozena bat inguru, eta Shinova taldeagaz ere kontzertuak nituen aretoetan. Udari

begira, hainbat jaialditan egotekoa nintzen; apirilean konturatu ginen ezinezkoa izango zela horiek egitea. Hasieran ez nuen sinesten, eta nahiko izorratuta egon nintzen, egoera berria asimilatzen. Orain, badakigu horrela izango dela denbora batez. Nire inguruko asko baino hobeto nago, antzerkia ere egiten dudalako urtean zehar. Udan lan egiten duen jendearen egoera larriagoa da.

Nøgenegaz Internet bidezko kontzertua eduki zenuen joan den astean.

Hilabete osoan egingo dudak kontzertu bakarra da. Iheskide taldeagaz antzeko beste bat egin nuen. Hile bitan kontzertu bi, talde horiek inizatiba horietan parte hartu gura izan dutelako. Zorteduna naiz, beraz. Gogoa asetzeko balio izan zuen, baina arraroa izan zen, maskara ipinita lan egin behar izan genuelako, besteak beste. Ikasteko balio izan du. Lehenengo aldia izan da soinua entzungailuetarako eta telebista edo internet bitartez jarraitzeko nahastu behar izan dudana. Beraz, baliagarria izan da trebatzeko. Uste dut horrelako formatuek jarraituko dutela, eta, beraz, ondo etorriko zait. Dena dela, niri gustatzen zaidana zuzenekoak dira.



ANDER BERSALUZE

"Uda polita zectorren: Azkena Rocken, BBK Liven, Jazzaldian... lan egitekoa nintzen"

KULTURA • A.M.

Ander Berasaluze soinu teknikari durangarrak erakundearen babes handiagoren falta igartzen du kulturgintzari dagokionez.

Zelan eragin dizu COVID-19aren agerpenak?

Otsailean pare bat kongresu bertan behera geratu ziren, eta martxoan jada ikusi genuen urte osoko lan asko bertan behera geratzen hasi zirela. Egoera honek galdera

asko sortu dizkit, ez dakigulako noiz bueltatuko garen aurretik genuen lan karga izatera, sektorea martxan ipini arren oraindino ez dagoelako ia lanik. Alde "positiboa" ere atera diot, industria oso bizkor doa eta ordu asko igaro ditut eguneratzen eta ikasten.

Urte polita zectorren, orokorrean; baita uda ere. Udako festibal askotan lan egitekoa nintzen: Azkena Rocken, BBK Liven, Donostiako Jazzaldian, Gasteizko jaietan, Donostiakoetan, Bilbokoetan... Shinova taldeagaz estatuko pare bat festibaletara joatekoa nintzen monitore teknikari lanetan.

Zelan irudikatzen duzu etorkizuna?

Apurka-apurka dena normaltasunera bueltatzea espero dut, berriro denok lanean hastea, askok ezingo dutelako diru sarrerarik barik askoz gehiago iraun. Egungo diru-laguntzak minimoak dira eta teknikari asko autonomoak gara. Orain arte teknikari lez aritutako batzuk beste sektore batean lan egitera behartu ditu egoerak. Egoera luzatzen bada, eta laguntzarik ez badago, ikus-entzunezkoen sektorea orain arte baino egoera larriagoan geratuko da.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Kultur ekintzekin berotuko dute normaltasun berrira egokitutako uda giroa Durangaldean

Berrizen, Atxondon, Zornotzan eta Garain bertan behera utzi dituzte jaiak; Otxandion zer egin aztertzen dabilta

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Uda giroaren eskutik heldu ohi da jai giroa Euskal Herrira. Baita Durangaldera ere. Hala ere, koronabirusak eragindako krisiak jaiak bertan behera uztera behartu ditu hainbat udal eta jai batzorde. Behintzat orain arte ezagutu ditugun modura. Berrizen, Atxondon eta Zornotzan jaiak ez antolatzea erabaki dute, eta Otxandion gaia aztertzen dabilta udala eta jai batzordea. Bestalde, Zaldibarko jaiak birmoldatu egingo dituztela iragarri du bertako txosna batzordeak.

Ezinbestean, normalitate berrira egokitutako uda giroa dugu aurretik, egoerari egokitutako jai giroa. Durangoko Tabira auzoan, jaietako mendi martxari eta lasterketari eustea erabaki dute. Uztailaren 11n egingo dira, "beharrezko segurtasun neurriak bermatuta".

Durangoko Tabira auzoan mendi martxa eta mendi lasterketa egingo dituzte, uztailaren 11n

Sanjoan jaiak modu birtualean ospatuko dituzte Atxondoko Axpe auzoan

Hala ere, gainerako ekitaldiak bertan behera utzi dituzte. Izen-ematea www.kirolprobak.com atarian egin daiteke, 10 euroren truke.

Bestalde, Garaiko jaiak eta udalekuak bertan behera uztea erabaki du udalak. "Pena handiz", baina osasun-neurriak betetzeko zailtasunak direla-eta, Garaiko udalbatza osatzen duten kide guztiek aho batez hartu dute erabakia. Alternatiba modura, urteko bigarren seihilekoan ekitaldi txikiren bat antolatu gura du udalak.

Sanjoanak lurretan eta Axpen Atxondoko Axpe auzoan modu birtualean ospatuko dituzte sanjoanak. Egitaraua sare sozialetan za-

lurretako plaza bertsoz beteko da ekainaren 20an, lurreta Plazaratu ekimenaren eskutik

baldu eta auzokoak parte hartzera gonbidatu dituzte, "bakoitzak bere etxetik". Argazki eta bideoak bidaltzeko deia ere egin dute. Gaur, 20:00etan, txopoa altxatuko dute, eta gauean berakatz-zopa eta txokolata hartuko dituzte. Zapaturako, mus eta tortilla eta bakailao txapelketak antolatu dituzte. Eta gauean erromeria giroa sortzeko gonbidapena egin dute. Domekarako, dantza saioa eta jolasak prestatu dituzte. Sanjoan sua ere berezia izango da, ez delako elkarregaz isiotzeko aukerarik egongo.

Lurretan ere ez dute Sanjoan surik isiotuko plazan. Hala ere, herritarrei San Joan bezperako kantua abesteko gonbidapena egin diete, norberak gura duen tokian. Horrez gainera, ekainaren 20an, lurretako plaza bertsoz beteko da, lurreta Plazaratu ekimenak eratuta. Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe eta Julio Soto arituko dira, Eneko Abasolo gai-jartzaile dela. Saioa 19:00etan hasiko da eta 230 lagunentzako edukia egongo da. Durangon, Otxandion eta Elorrrion ere ez dute surik antolatutako. Elorrrion, umeentzat arratsalde-pasa egongo da, 18:00etan, San Roken.

Kulturaz bustitako uda

Durangoko Udalak Uda kulturaz blai ekimena landu du herriko eragileekin elkarlanean, "uda kultura diziplinez betetzeko asmoz". Adin guztietarako 33 kultur ekitaldi lotu dituzte, eta bestelako 60 ekintzagaz (irteerak, tailerrak...) osatuko dute egitaraua. Elorrrion ere lanean dabilta egoerari egokitutako kultur eskaintza osatzen. Uztailaren hasi eta irailera bitartean, astebururo ikuskitun bi antolatzea dute erronka. Horretarako, San Rokeko berdegunean eszenatoki finko bi ipiniko dituzte. Musikak eta familientzako ikuskitunek osatutako dute egitaraua.



Koronabirusaren eraginez, hainbat udal eta jai batzorde jaiak bertan behera uztera derrigortuta egon dira.

“Funtzionaltasuna lehenesten dugu gure arkitekturan; ez gara estranbotikoak”

Eraikuntza proiektu handiak arkitektura-enpresa handien ardurapean egon ohi dira. Elkar elikatzen dute. Atelier80 arkitektura bulegoak egitura hori haustea lortu du eta euren diseinuari jarraituz eraikiko dute Energy Intelligence Center azpiegitura modernoa, Abanton.



Mireia Gandarias
Mintegi
Atelier80 Arkitektoak
Durango | 1980

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Energiaren sektorean Bizkaia nazioarteko erreferentzia-gune bihurtu guran, Energy Intelligence Center eraikitzen hasiko dira aurten, Abanton. Bizkaiko Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak 19 milioi euroko inbertsioa egin dute ia 19.000 metro karratu izango dituen azpiegitura egiteko. Mireia Gandarias durangarra puntako eraikin horren diseinuan ibili da.

Zelan lortu du arkitektura estudio txiki batek hain proiektu handiaren kargu egitea?

Hedadura handiko proiektua zenez, G&C estudioarekin batera, taldean aurkeztu ginen lehiaketara. Lantalde egoki bat osatzea funtsezkoa da holako proiektu batean.

Lehiaketa publikoa irabazi zenutela jakin zenuten unea zelakoa izan zen?

Poz handiko unea izan zen! Saltoa hasi ginen gure estudioan. Sorpresa handia hartu genuen, normalean horrelako egitasmo erraldoiak marka handiek eramaten dituztelako. Hori da errealitatea. Egitasmo hau Norman Foster-en edo antzeko arkitekto handiren baten ardurapean egon balitz, inor ez zen harrituko. Gu enpresa txiki bat gara, eta, normalean, beste eskala batzuetan mugitzen gara. Baina, hala ere, inguruko arkitektura-estudio bat erronka handiei aurre egiteko gai dela erakutsi dugu. Eta, aldi berean, kapaz gara XV. mendeko baserri bat patxadaz eraberritzeko eta bestelako proiektu motak gauzatzeko.

Zentro berriko diseinuari erreparatuta, panel fotoboltaiko asko ikusi daitezke eraikinaren gainaldean. Zenbat daude eta zenbat energia sortu dezakete?

Ez daude gainaldean bakarrik, baita lateraletan ere, hegoaldera begira. Panelen bitartez sortzen den energia eraikinaren kontsumoaren %30 estaltzeko adinakoa da, teorian. Estimazio bat da. Izan ere, ikerketarako makinariak behar duen energia kantitateak eragina izango du kontsumoan.

Iraunkortasunaren ikuspegitik, zer beste teknologia txertatu duzue?

Esaterako, kanpoko airea baliatuta, aerotermia energia sistema berriztagarria erabiliko da eraikinaren barrualdea berotzeko eta hozteko. Honela funtzionatzen du: sistemak

refrigerante bat du barruan eta bere ezaugarri bat da tenperatura edo presio aldaketekin, gas edo likido bihurtzen dela, bere tenperatura igoz edo jaitsiz. Aldaketa horiek erabiltzen dira inguruan dagoen haizea berotzeko edo hozteko. Gaur egun, oso ohiko teknologia da eta etxebizitza berririk gehienetan dago txertatuta.

Eraikinak beirate handiak ditu. Eguzkiaren argia ahalik eta gehien aprobeztatzeko da?

Argi naturala ahalik eta gehien erabiltzea asko zaindu dugun kontua da. Beraz, beirate handiak ditu, bai, baina, aldi berean, baita hegal handiak ere, batez ere gaineko aldean. Hegal mugikorrek dira eta eguzkiaren unean uneko kokapenera egokitu daitezke. Sistema horrek eguzkitik heltzen den argi kantitatea kontrolatzea ahalbidetzen du. Izan ere, argi gehiegi sartzen bada barrualdea asko berotu daiteke eta horrek aire egokitua topera jartzea eragingo du. Horrela, energia gehiago kontsumituko da. **Zer irizpide hartu duzue kontuan eraikinaren forma diseinatzeko orduan?** Lehiaketan zehaztutako eskakizunak dira abiapuntua. Horrek muga batzuk ezartzen ditu. Pieza horiek denak koktelera batean sartuta, geometria posible bat sortzen da. Ondoren, apurka-apurka, egitura moldatzen eta zizelkatzen joan gara, izaera propio bat emateko. Gure arkitektura oso arrazionala da, ez gara oso estranbotikoak formetan, eta funtzionalitatea lehenesten dugu.

Zelan antolatu duzue barrualdeko espazioa?

Sarrera nagusiari garrantzi handia eman diogu eta bere balioa nabarmentzen ahalegindu gara, azken batean hara doazenek lehenengo ikusiko duten gunea izango delako; azpiegitura osoaren aurkezpen moduko bat da. Ondoren, besteak beste, arlo administratiboari lotutako bulegoak joango dira. Beste gune batean, ikerketarako laborategiak eta eurei lotutako bulegoak egongo dira. Azkenik, hangar edo nabe handi bat dago, industriaren ikerketari eta garapenari lotutako probak egiteko erabiliko dena.

“**Gure arkitektura oso arrazionala da, ez gara estranbotikoak formetan, eta funtzionalitatea lehenesten dugu**”

Abentura honetatik, zer ikasgai ateratu duzue?

Oso garrantzitsua dela lantaldea ondo aukeratzea. Horixe izan da ikasgairik inportanteena. Askok ikasten da elkarlanean arituta.

Trantsizio energetikoaren aroan bizi gara. Zuei ere etengabe eraberritzea eskatzen dizue horrek?

Bai. Formakuntzak ez du etenik. Derrigorrezkoa da eremu horretan lehenengo lerroan egotea. Legeria berria zorrotza da eremu horretan. Berdin da azpiegitura erraldoi bat edo etxebizitza txiki bat izan; eraikin guztiek kalifikazio energetiko oso ona izatea geroago eta normalizatuago dago.



Abanton egingo duten azpiegitura berriaren infografia. FLOREN LOIZAGA

R.P.S. 214/06

A. Urreta
pedagogoa

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

ELORRIKO
UDAKO IGERILEKUAK

Ekainaren 22tik irailaren 20ra arte
Informazio gehiago → www.elorrio.eus

Tabirako igerilekuak asteen zabaldu dituzte, hainbat segurtasun neurri hartuta

Elorrioren astelehenean, ekainaren 22an, zabalduko dituzte igerilekuak, Eleizaldekoak eta Kiroldetegiak. Otxandikoak uztailaren 1ean zabalduko dituzte



Tabirako igerilekuak astelehenean zabaldu zituzten.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Eguraldia lagun izan ez den arren, asteen eman diote hasiera igerileku denboraldiari Durangaldean. Eskualdean, Durangokoak izan dira lehenengo igerilekuak zabalitzen. Astelehenean, hainbat segurtasun

neurri hartuta zabaldu zituzten Tabirako igerilekuak. ANBOTO bertan izan zen eta Unai Urien sorosleagaz berba egin zuen. Urienek aitortu zuenez, "aurtengoa erronka bat" da eurentzat. "Hasieran, kezka handia izan genuen. Azaldu digute

zelan jokatu behar dugun, baina horrelako leku batean mila gauza gertatu daitezke, eta inoiz ere ez dakizu momentuan zelan jokatu duzun. Hala ere, badakigu egunetik egunera joan behar dugula, eta beharbada segurtasun neurri ho-

riek moldatzen joan beharko dugu", esan du sorosleak.

Aurtengoa ez da sorosleentzat bakarrik izango egoera berria, erabiltzaileentzat ere berezia izango da. Esaterako, besteak beste, instalazioetara sartzen diren momentutik berdegunera heldu arte maskara ipinita joan behar dute eta hesiekin mugatutako bidetik joan beharko dute berdegunean. Urienek esan du jendearen "kolaborazioa" ezinbestekoa dela eta "mese-dez" eskatu die ezarritako neurriak betetzeko. "Mundu guztiak bere aletxo ipintzea beharrezkoa da, bestela giro txarra sortuko da eta ezingo dugu uda on bat pasatu", gaineratu du sorosleak.

Elorriokoak astelehenean

Elorriokoak izango dira hurrengo igerilekuak zabalitzen. Astelehe-

Elorrioko igerilekuetan txanda bi egongo dira, 11:00etatik 15:15era eta 16:15etik 20:30era

nean zabalduko dituzte Eleizaldeko kanpoko igerilekuak eta Elorrioko Kiroldetegiak. Biak aisialdirako erabiliko dira.

Durangon lez, Elorrioren ere txanda bi egongo dira. Lehenengo 11:00etatik 15:15era izango da, eta bigarrena 16:15etik 20:30era. Udaletik jakinarazi dutenez, txanda bien arteko ordu horretan ins-

talazioak itxita egongo dira, eta garbiketa eta desinfektatze lanak egingo dituzte. Igerilekuetara joan gura dutenek alde aurretik ordua hartu beharko dute, interneteko plataformaren bitartez edo 94 682 10 27 telefono zenbakira deituta. Erreserbak aurreko egunean egin beharko dira.

Otxandion, erabiltzaileek zenbat jende dagoen jakin ahal izango dute aplikazio baten bitartez

Horrez gainera, igerilekuan, bai uretan baita uretatik kanpora, pertsonen arteko segurtasun neurriak mantentzea derrigorrezkoa dela azaldu dute.

Bestalde, Eleizaldeko igerileku txirristak ezingo direla erabili eta uretan denbora mugatuan egon ahal izango dela jakinarazi dute, besteak beste.

Otxandio eta Atxondo

Otxandiko igerilekuak uztailaren 1ean zabalduko dituzte. Igerilekuak mugatuta izango du aforoa, eta, aplikazio baten bitartez, erabiltzaileek uneoro jakin ahal izango dute zenbat jende dagoen edo tokirik badagoen.

Bestalde, Atxondoko Udala igerilekua kudeatzeko enpresa baten bila dabil. Interesatuak ekainaren 22ra arte izango dute aukera euren proposamena aurkezteko.



Durangon, berdegunean hesiekin mugatutako bidetik joan behar da.



Elorrioko igerilekuan ezingo dira txirristak erabili.



**Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN KATERIN
zabalik dago!**

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA


Etorri eta ikusi

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com



Ostalaritza gida

anboto



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behea - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

**Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetak
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Fernando Mardonesen 'Desbideratzeak' erakusketa inauguratu dute, koronabirusagaitik atzeratutakoa

Artista bizkaitarraren piezak abuztuaren 30era arte egongo dira ikusgai Durangoko Arte eta Historia museoan



Fernando Mardones azalpenak ematen inaugurazioan.

ARTEA • A.M.

Lehenagotik prestatuta egon bada ere, Fernando Mardonesen *Desbideratzeak* erakusketa inauguratu barik egon da orain artean, koronabirusaren eraginez. 50 piezatik gora egongo dira ikusgai Durangoko Arte eta Historia museoan *Desbideratzeak*, Argazki

Abuztuaren 30era arte egongo da ikusgai; 50 piezak baino gehiagok osatzen dute erakusketa

izaeraren aztarna, ikus daitekeenaren eraldaketa erakusketaren barruan. Bere ezagutzatik abiatuta, bere ingurune hurbileko errealitatearen irudien bitartez grafikatik gertatzen den eraldaketa aztertzen du.

Grabatzaile eta margolaria izateaz gainera, EHUKo Arte Ederretako fakultateko irakaslea ere bada Mardones, Leioan.

Geure Durangaldea

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Apologiak (III): Limitea

Biziak limiteen artean dihardu. Hala, limitea horma bat bezala agertzen da gure aurrean, posibilitatearen eremua eraikiz. Izan ere, muga fisikoak dira ingurua definitu eta ulergarri bihurtzen dutenak, bestela, eter kaotiko eta abstraktu batean biziko ginatke.

Historian zehar aurkitutako limiteak gainditzeko grina izan da gizakiaren garapenaren ardatzetako bat: hegazkinak dira orain gure hegoak eta itsasontziak gure hegala. Limite horien gainditzek ukaezinak diren hainbat onura ekarri dituen arren, paradoxa erraldoi bat agertu zaigu azken hamarkadetan: limiteak gainditzeko dugun gehiegizko gaitasunak imaginario kolektibotik ezabatu ditu. Beste era batera esanda, mugak existitu ez balira bezala pentsatu eta jardun dugu, horrek dakarren ajearekin.

Limiteekin topatzerakoan, errealitateetik ihes egiteko behar antropologikoa sentitzen dugu. Izan ere, gure berezko ahultasunaren ukapen kronikoa gara. Zelan azaldu bestela, bizitza bermatzeko baliabide mugatuak dituen planeta batean bizi garen arren, baliabide horien mugagabeko ustiaketan eta suntsiketan oinarritutako sistema ekonomiko bat gurtzen dugula? Giza mugarik oinarritzkoenak, gure gorputza eta bere hilkortasuna, ezleku bihurtu genituelako izan da hain arrotza azken hiletan bizitakoa. Marte kolonizatu nahi genuen, baina azkenean, lipidoz eta proteinaz inguratutako ARN molekula batek ezer ez garelako gogorazti digu. Perspektiba eta umiltasun tonak beharko ditugu. "Batere ez dut, ta gutxiago eskatzen", zioen Lisabök.

MUSIKA • A.M.

Haizetara kaleko musika jaialdiaren 15. edizioa uda honetan egin behar zen, eta egin egingo da, baina aldatuta dator koronabirusak sortutako alarma egoeraren ondorioz. Besteak beste, jaialdiaren hamalau urteko ibilbidea gogoratzen duen dokumentala estreinatuko dute gaur. Dokumentalaz gainera, erakusketa bik osatuko dute jaialdiaren edizio berri hau. Bata Zelaieta parkean egongo da ikusgai, ekainaren 19tik uztailaren 12ra; besteak beste, aurreko edizioetako kartelak egongo dira ikusgai. Bestalde, Unai Sasuategi argazkilariaren lanekin osaturiko erakusketa birtuala egongo da Haizetara jaialdiaren webgunean.

Haizetara jaialdiaren ibilbidea errepasatzen duen dokumentala ikusgai

Gaur estreinatuko dute, 20:15ean, Haizetara jaialdiaren webgunean eta Mediatekan



Iazko Haizetara jaialdiko irudi bat.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1#

MIÑAN

Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2#

AITAREN ETXEA

Karmele Jaio (Elkar)

3#

IBAIERTZEKO IPUINA

Oihane Amantegi (Elkar)

4#

AMEK EZ DUTE

Katixa Agirre (Elkar)

5#

ZENDABALITZ

Erika Elizari (Elkar)



Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com



Botikak	
BARIKUA, 19 - 09:00-09:00	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 22 - 09:00-09:00
09:00-22:00	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 20 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 23 - 09:00-09:00
09:00-13:30	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurren 22 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 24 - 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6 - ELORRIO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 25 - 09:00-09:00
09:00-22:00	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 21 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Iraia**! Uda hasieriaz batera domekan 9 urte handi egingo dozuz. Egun on ona izan daizula! Familia guztian partez mosu handi bat ta bide batez, uda polita pasau!

Zorionak, **Luzia**, zure 7. urtegunean! Egun polit eta alaia izan. Musu handi bat, aita, ama, Eder, Irati, Endika, aitteitte Karlos eta Jose Ramon eta amama Enkarna eta Begoñan partez. Baita beste senideen partez ere.

Eguraldia		
ZAPATUA 24° / 11° ☀	ASTELEHENA 24° / 12° ☀	EGUAZTENA 30° / 16° ☀
DOMEKA 23° / 13° ☀	MARTITZENA 26° / 15° ☁	EGUENA 30° / 18° ☀

Aurreztu %4€

EROSKI erosten duzun guztian

Ureztu txarret berria DOAN hilaerri batez

EROSKI club

PLAZANBAZAN

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Bilatu

Uharte galduetan uste baino gauza gehiago aurki daiteke. Hemen zenbatuta ikusten dituzun elementu asko irudi nagusian ere badaude, eta beste batzuk, aldiz, ez. Bereiz itzazu.



**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
IZURTZA 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Txakurtxabolagaz. C.E.E.: **80.000€**
ATXONDO 85 m2. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. 18 m2-ko lonja. **148.000€**
KURUTZIAGA 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E= E. **140.000€**
AUKERA 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea. C.E.E= G. **93.000€**
IURRETA 3 logela. Terraza. ESTREINATZEKO. C.E.E:E **97.500€**
ZALDIBAR 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. Berriztatua. C.E.E.:G **98.000€.**

//PROMOZIO BERRIA
PROMOZIO BERRIA. Santa Ana 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. **170.000€**-tik aurrera.
PROMOZIO BERRIA. ZALDIBAR 2 eta 3 logelakoak.Trastelekua. **115.000€**-tik aurrera. (BEZ-a barne)

//ETXEBIZITZAK SALGAI
UNTZILLATZ 103 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. C.E.E:E **250.000€.**
ABADIÑO 1.000 m2-ko lursaila. Eraikitzeo aukeragaz. **250.000€.**
APARTAMENTUA Logela, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garaje itxia. C.E.E:E **175.000€**
IURRETA Alokiruan erosteko aukeragaz. 2 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza.. C.E.E:F **115.000€**
ARTEKALE Erdigunean. 83 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E:E **155.000€.**
MATIENA J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. Trastelekua. C.E.E:E **145.000€**
TABIRA Etxebizitza altua. 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E:E **200.000€**
MIKELDI 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E:E **170.000€.**
ZEHARKALEA BERRIZTATUA. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E:F **156.000€.**
EUBA BERRIZTATUA. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. C.E.E:E **147.600€.**
IURRETA 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea. C.E.E:E **265.000€**
ALDE ZAHARRA Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. C.E.E:E **185.000€**
BERRIZ Bidegain. 3 logela, 2 komun, eskegitokia, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara eta garajea. C.E.E:F **220.000€**
KURUTZIAGA 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E:G **186.000€.**
GAZTELUA Lursaila. 26.044 m2. 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarrondo, zenbait partzelatan).

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
TRONPERRI Garaje itxia. **21.000€.**
MENDIZABAL Itxia. **24.000€**-tik aurrera.
ASKATASUN ETORBIDEA **8.000€**-tik aurrera garajeak.
ABADIÑO 160 m2. Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan, **175.000€**
F.J. de ZUMARRAGA Aukera. 114 m2. SALMENTA. **150.000€.** Negoziagarria.

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.
DURANGO Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.
DURANGO eraiki berria, 3 logelako duplexa. Azkeneko etxebizitza salgai. 200.000 €.
DURANGO Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO Hegoalde kalean. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
BERRIZ Elizondo etxetaldea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ELORRIO 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

//LURSAILAK SALGAI
DURANGO 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
ABADIÑO 1.000 m2-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeo baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO Bifamiliarra eraikitzeo lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA Txalet bifamiliarra eraikitzeo lursaila. 3.000 m2-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO Aldape auzoa. Baserrria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €
ATXONDO Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.
MENDATA Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.
BERRIZ Baserrri ederra, Murgoitioko zonaldean. 3 hektareako lursaila baserrri ondoan.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO 40 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.


//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.


**Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com

**DURANGO**
3 logela
2 komun
74,96 m²
MARTXOAREN 8KO: Babes Ofizialeko Etxebizitza. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Argitsua. Garajea eta 3,96 m²-ko trastelekua. Igogailua. C.E.E. bidean.
Prezioa kontsultagai

**DURANGO**
3 logela
80 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. 2 balkoi. Trastelekua. Egoera onean. C.E.E:G
164.000€

**DURANGO**
2 logela
71 m²
SAN FRANTZISKO KALEA: 2 logela, komuna, egongela, sukalde jantzia eta jantzigela. 2 balkoi. Igogailua. C.E.E: Bidean. Garaje itxirako aukera + 22.000 €. **207.000€**

**DURANGO**
2 logela
71 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: 71 m2. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde jantzia. Balkoia. Garajea eta 6 m2-ko ganbara, igogailua. C.E.E:E
237.500€

**DURANGO**
3 logela
95 m²
TRONPERRI: 4 logela, 2 komun, egongela, sukalde jantzia eta despentsa. Garajea eta ganbara. Igogailua. Terraza handia eta txoko komunitarioa. C.E.E:E
258.000€

**ABADIÑO**
3 logela
78 m2
ASTOLA AUZOA. 78 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Balkoia. Ganbara. C.E.E:G alokairuan, erosteko aukeragaz.
117.000€

**Fernando Uribe**
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO
AMBROSIO MEABE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **205.000 €** / E.E.Z=E
ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000€** / E.E.Z=E
ASKATASUN ETORBIDEA 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. **237.500€** / E.E.Z=E
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran
KOMENTUKALEA 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. LEHEN 160.000 € / ORAIN **135.000€**/ E.E.Z= G
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeo 600m2-ko lurzorua. **640.000€**
SASIKOA 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000€** / E.E.Z= E
TXATXIENA 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000€** / E.E.Z=E

//ABADIÑO
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000€** /E.E.Z=E

//BERRIZ
ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000€**
ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000€** / E.E.Z=G
LEARRETA MARKINA 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€** / E.E.Z=E
MURGOITIO KALEA Etxebizitza bitan banatutako baserrria lursailagaz. **290.000€**

//IURRETA
AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000€** E.E.Z=E

//MATIENA
TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000€**/ E.E.Z=F

//OTXANDIO
ELIZABARRI 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F
OLETA AUZOA banakako etxebizitza. 460 m2 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m2-ko lursaila. **480.000€** / E.E.Z=E

//MAÑARIA
ARRUETA AUZOA Berreraikitzeo baserrria lursailarekin. **220.000€**

//ZORNOTZA
SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000€** E.E.Z=Bidean

//BERRIAK
MATIENA
TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000€**/ E.E.Z=F

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Marina Azkarraga eta Yaiza Garcia Marketin eta Publizitate ikasleak dira Bilboko Harrobia lanbide heziketa ikastetxean. BerdinGO! mahai-jolasa sortu eta merkatu-ratu dute. 8 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Euskaraz eta ingelesez jolasteko prestatu dute, eta sare sozialen bitartez edo sortutako webgunean lortu daiteke: www.berdingo.eus.

Berdintasuna lantzeko mahai-jolasa sortu duzue. Zelan jaio zen ideia?

Marina Azkarraga: Ikastolan ETHAZI metodologiagaz lan egiten dugu, erronken bitartez, eta balioetan oinarrituriko mahai-jolas bat sortzea izan zen erronka horietariko bat. UNESCOk kaleratutako balioen zerrendari begiratuta, berdintasuna aukeratu genuen, oso balioagarria iruditu zitzaigulako.

“Genero arrakalarik nabarmenena duten ofizioak hartu ditugu: futbolaria eta garbitzailea, adibidez”

Zein izan da zuen helburua?

M.A.: Ofizioetan berdintasuna bultzatzea, eta umeek ikustea gura dutena izan daitezkeela, suhiltzailea edo medikua, neska ala mutila izan. Inklusibitatea ere landu dugu pertsona askoren irudiak ipinita.

Prozesu luzea izan da?

Yaiza Garcia: Kurtso hasieran, irailan, bota ziguten erronka. Merkaturia apur bat ikertu, eta Urtxintxa elkarteagaz hartu-emanetan ipini ginen. Euren bitartez mahai-jolasak zelan sortzen diren ikasi genuen, jolasen prozesua, jolas motak... Merkaturiko mahai-jolasak probatzen jarraitu genuen, eta gero diseinua lantzen hasi ginen. Prototipoa sortuta, eskola batera joan ginen probatzera. **Prozesu osoa izan duzue eskuetan. Aberasgarria izan da?**

Y.G.: Bai, noski! Oso aberasgarria. Estres handiko uneak bizi izan ditugun arren, oso pozik gaude prozesu guztiagaz. Eta umeek gustatu zaie.

“Jolas hau umeek berdintasuna modu ludikoan barneratzeko era bat da”

Durangoko gazte biek umeen artean berdintasuna lantzeko mahai-jolasa sortu dute



Marina Azkarraga Kortazar eta Yaiza Garcia Lau
BerdinGO! mahai-jolasa sortu dute
Durango | 1998

Horixe genuen helburu: gustuko izatea, berdintasuna barneratzea eta gura duten lanbidea lortzea.

Zer egin zaizue gaxena?

M.A.: Lehenengo, ideia zehaztea. Jolas entretenigarria topatu behar genuen, umeak jolastera bultzatuko zituen. Gero, diseinua ere bai.

Y.G.: Ikusi genuen umeek lanbideak interpretatzeko zailtasunak zituztela. Euren ikuspegira moldatu genuen.

Zergaitik aukeratu zenuten berdintasuna eta ez beste balioen bat?

M.A.: Generoari oso lotuta dauden ofizioak daude eta hori aldatu egin behar da, txikienetatik hasita. Genero arrakalarik nabarmenena duten ofizioak aukeratu ditugu: fut-

bolaria eta garbitzailea, adibidez.

Y.G.: Eskolan ere asko lantzen dute berdintasuna eta baliabide erabilgarria izan daiteke. Umeek parekidetasuna modu ludikoan barneratzeko era bat da.

“BerdinGO!-k izan duen harrera oso positiboa izan da. Harrituta ere bagaude”

Pozik zaudete jolasaren harreragaz?

M.A.: Bai. Eskolako erronka batetik abiatu ginen, eta Bilboko zenbait

eskolatara joan ginenean oso harre-ra ona izan zuen jolasak. Irakasle batzuek ere erosi zuten, eskolarako eta seme-alabekin jolasteko. Horrek aurrera egitera animatu gintuen.

Y.G.: Oso positiboa da izan duen harrera. Harrituta ere bagaude.

Jolas bitan aritzeko aukera dago.

Y.G.: Bingoa eta bikote jolasa. Lehenengo talde handitan jolasteko prestatuta dago. Beste edozein bingoren antzera jolasten da: kartoietan ofizioetako langileen irudiak egongo dira batetik. Bestetik, beste jokalariei batek ofizio horiei dagozkie objektuak edukiko dituztako batean. Bikote jolasa, talde txikitik egiteko pentsatuta dago, eta bizkortasuna lantzen da.

Lau hortza

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria



Kontuz! Obrak

Trrrrrrrr tok-tok-tok trrrrrrr tok-tok-tok... Goizean goiz leihotik sartu den zaratak obra berriren bat iragarri dit. Beharrezko obra bat izango da; edo ez, batek daki. ‘Euskal Herria eraiki’ aldarria hormetan ikusi, eta batzuek aitzurra, pala eta zementuagaz erantzun zuten.

Obra batzuk ez zaizkit ulergarriak egiten. Kasu batzuetan alferrekoak dira, planifikazio faltagatik. Esaterako, Durangoko Astarloa kalea trafikoari zarratzea erabaki zuten 2016an, baina hile batzuk lehenago autoen emisioak xurgatzeko gai ziren adokinekin berriro zuten espaloia. Iurretan, N-634 errepidearen obren ostean, herrigunea eta plaza lotzen dituen tunelaren funtzioa eta balioa devaluatu dira. Norbaitek pentsa dezake urte asko igaro direla zulo hori egin zenetik, baina errealitatea da gaur egun ez dela beharrezko zerbait, eta orduko inbertsioa aurreztu genezakeen. Zenbat horrelakoak, herririk herri.

Konfinamendutik atera eta kontxo! AHTaren obra bueltatu da, amaitzen ez den amesgaizto bat lez. Lurra txikitzen, baserriak botatzen. Karrokada bete milioi gehiago aspalditik puztuta datorren proiektuarentzat, sanitarioek baliabideak eskatu dituzten pandemia garaian, autonomoek eta kultur langileek laguntzak eskuratzeko zozketetan parte hartu behar izan duten krisi sasoiari, etxe askotan laster arazoak sortuko direla sumatzen den unea. Ez dut herritarrik entzun AHTrako dirurik eskatzen. Ustez garapen lokala, mugikortasun jasangarria eta lan telematikoa indartu behar diren etorkizun batean zer zentzu dauka hiri arteko tren horrek?

Hor ere birusen bat ibiliko da, baina txanpon formakoa eta jendea bereizten dakiena.

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaudete. Estás en tu casa

www.sukia.com